



67 Zka. MARTXOA 2017 MARZO N° 67

2017/03/25an Ohiko Batzar Nagusia Donostian burutu zen, bertan 2016ko balantzea eta jardueren memoria eta 2017ko jardueren plana eta aurrekontua onartu ziren.

Urte honetan bost erronka planteatzen ditugu:

Lanbide Sustapena: Gizarte zerbitzuen sisteman Zorroaren Dekretuak hainbat zerbitzu eta lanbide profilen definizioan aldaketa eragingo du.

Prestakuntza: prestakuntzan “mini-piluak” garatzeko dinamika hasi nahi dugu.

Ezagueraren eraketa eta edapena: eskolan gure presentziari buruzko estabaida estatu mailan Elkargoen Kontseilu Nagusiak proposatutako erronka gurean jasotzea erabaki dugu.

Sozial Aldaketa: gizarte hezitzaileen lanbide figura defendatzeko elkarritzeta eremuak lortzea nahi ditugu.

Organizazioa eta Itunak: Elkargokideen arteko bilgune formalak eta ez formalak eratzeko erronka daukagu.

Elkargoko Batzordea

GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



#Porunaleye de Educación Social



#10añosdeCGCEES



2016.ko bukaeran Kontseiluko presidenteak Gizarte Hezkuntza arautzen duen legearen eskaria aurkeztu zuen Osasun, Berdintasun eta Gizarte Segurantza Ministerioan Gobernuak garatzeko.

Gizarte Hezitzaile figura egon badago, bai enpresa pribatuan bai eta Herri Administrazioan ere, baina lanbidea erregularizatua ez dagoenez, honen mugak eta irismenak ez daude argi; horrela, lanbide intrusismoa eta ezjakintasuna sortzen da figura profesional honen hautatze prozesu publikoetan eta beroiei esleitutako zereginetan.

Aurtengo lehen hiruhilabetean Kontseilua osatzen dituzten Elkargoen presidenteeik Gizarte Hezkuntza legea garatzeko eskaria Ministerioan aurkeztu dituzte eta ekintzak egiten jarraituko ditugu elkargokide, ikasle eta nahi dituzten hiritar guztiak eskariari sostengua eman diezaioten.

GHEE-CESPVREN BERRIAK**Gizarte Hezkuntza arautzen duen legearen eskaria.**

Elkargoko presidenteak gure erakundearen izenean urtarrilaren 3an Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministeriorari eskaria aurkeztu zuen.

Martxoaren 10ean Gipuzkoako Delegaritzak Donostian elkartzeko deia egin zuen eta legeari sostengua emandako sinadurak bildu eta Ministerioari eskaria egin zion.

Elkargoko Batzordeak martxoaren 22an Bilbon legeari sustatzeko azken sinadurak jasotzea eta Ministeriora bidaltzeko elkartzeko deia egin zuen eta ondoren eskaria bidali zuen.

Apirialaren 6an Gasteizko Filosofia Fakultatean Gizarte Politika Kongresuaren bitartean sinadurak jasotzea Delgaritzako lagunak eginkizuna antolatuko dute, ondoren Ministeriora bidaltzeko.

Gizarte Zerbitzuetako euskal Kontseiluko haurrak eta nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialean parte hartu

Urtarrilaren 10ean Batzorde honetan parte hartzen duen Elkargoko batzordeko laguna bilerara joan zen.

Elkargoaren egoitza berria

Gobernu Batzordeak urtarrilaren 17ko bileran elkargoaren egoitza berrira aldatzea onartu zuen eta otsailaren 28an Bilboko Luzarra kaleko, 14-16, 4., 2 Departamentura aldaketa gauzatu zen, Bailen kaleko bulegoa utziz. Toki berrian, administrazio lanak egiteko lekuaz gain, ikastaroak, jardunaldiak edo taldeko bilerak 15 lagunentzako nahiko lekua ere badago.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernu Sailburuari Gorako Errekurtsoa aurkeztu.

HAEERen 2017ko urtarrilaren 20ko ebazpenean (lan) orientatzaile lan poltsa probarako gizarte hezitzairen titulua onartu ez zela eta gizarte hezitzairen eskubideak urratu zituztela Elkargoak otsailaren 20an gorako erreketsoa aurkeztu zuen; hala ere onartua ez da izan.

Era berean, HAEKO Orientatzaile lan poltsarako proban gizarte hezkuntza titulua onartzearen aldeko irizpideak hiritar eskaria www.irekia.euskadi.eus bitartez otsailaren 10ean argitaratu zen. Otsailaren 28an 81 boto alde zituen.

Arabako Gizartze Zerbitzuetako Lurralde Kontseiluko Osoko bilkuran parte hartu.

Elkargoko Arabako ordezkaria erakunde honek otsailaaren 22an egin zuen batzarrera bertaratz zen.

Elkargoak sostengua eman dio Arabako F.A.ko adin txikiko eta familia zerbitzuetako profesional batzuk komunikabide batek Arabako babes egoitzetan bizi diren adin txikikoei buruzko emandako informazaioa arbuiatzen duen dokumentuari.

Bilboko Udalako Droga gaietako teknikari hautaketa prozesuan gizarte hezitzai-leak onartzeko Elkargoak martxoaren 20an eskaria egin du deialdian gure titulua onesten ez baizen.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA**GIZARTE HEZITZAILEAK LAN-ORIENTABIDEAN**

Gizarte Hezkuntza, Dokumentu Profesionalizatzailen arabera, (Gizarte Hezitzaleen Elkar-goen Kontseilu Orokorra, 2007) honela definitzen da:

- Heziketaren subjektua gizarte sareen dibertsitatean sartzea, hots, gizartekoitasuna lan-tzean eta gizarte zirkulazioan sartzea.
- Kultur eta gizarte sustapena, horien bidez zabalduko baitira heziketa, lan eta aisiarako eta gizarte partaidetza zabalduko duten kultur ondasunak bereganatzeko aukerak.

Lan bitztan sartzea da, gure gizartean, gizarteratze global baterako oinarrizko elementue-tako bat.

Gizarte hezkuntzaren izaerari dagokionez, lanbide pedagokikotzat hartzen da, hezkuntza testuinguru eta bitartekotza eta prestakuntza ekintzen sortzailea. Pertsona eta taldeekiko harreman zuzenera bideratutako alderdiak ditu, horien gizarteratzea sustatzeko.

Gizarte Hezkuntzako unibertsitate titulazioak horrela ulertu du hori eta bertako ikasketa kurrikuluetan jasota daude.

UPV/EHUko bi campusetan ([Leioakoa Biboko Irakasle U.E.](#)) Ikasketa Plana fitxan sakatuta eta [Donostian-San Sebastianeko Filosofia, Antropologia eta Hezkuntza Fakultateko](#) 6 ECTS dituzten Hautazkoak atalean, Lanbidearen eta Enpleguaren Garapenerako Orientazioa modulua ematen da, eta hori oinarrizko eta nahitaezko prestakuntzan ematen denari osagarri zaio.

[DEUSTUKO](#) **Gizarte Hezkuntza** kurrikuluan, derrigorrezko irakasgaien artean, Lana, Enple-gua eta Gizarteratze eta Laneratzea dago, 6 ECTS dituena. Bestalde, emandako modulue-tako oinarrizko prestakuntzak eta beste prestakuntza proposamen batzuek osatu egiten dute adierazitako moduluan jasotako prestakuntza.

Beste unibertsitate batzuetako kurrikuluetan ere aurki dezakegu Lan-Orientabidea. Horien artean dago UNED ere.

Bestalde, Hezkuntza Administrazioak egokitzat hartzen du Gizarte Hezkuntzako profesio-nala lan orientabidean prestakuntza emateko.

Estatuko Lege Organikoko 95. artikuluak Prestakuntza Zikloetako irakasleek bete behar dituzten baldintzak adierazten ditu.

Zehazki esanda, Euskal Autonomi Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Espezialitate Ziklo guztieta Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak irakasgaiko Irakas-leen Espezializazioko Erdi eta Goi Mailako zikloetan Gizarte Hezkuntzako diplomatura edota gradua sartzen da V Eranskinen adierazita bezala (33. or.) [RD 276/2007 de 23 de febrero Real Decreto 276/2007, de 23 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de ingreso, accesos y adquisición de nuevas especialidades en los cuerpos docentes a que se refiere la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, y se regula el régimen transitorio de ingreso a que se refiere la disposición transitoria decimoséptima de la citada ley.](#)

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

Beste alde batetik, orientabiderako burutzen dituen ekintzitarako erabakietan baimendu egin du gizarte hezitzaileek ekintza hauek burutu ditzaten EAEko hainbat lankidetza era-kundeetan, honako ebazpen honetan ikus daitekeen bezala:



EBAZPENA, 2015eko urriaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan desabantaila-egoeran dauden kolektiboetako pertsonentzat enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak garatzeko laguntzen 2015eko deialdia argitaratzeko.

Baina IVAPek Orientatzaileen lan-poltsarako proban ez du utzi Gizarte Hezkuntzako titulu-dunak sartzen; beraz, Elkargoak gorako errekurso bat jarri du aurreko argudioak adieraziz eta onartutako titulazioen artean sar dadila eskatuz; hala ere, atzera bota izan da.

INTERESGARRIKOAK




**RES número 24
VII Congreso de
Educación Social**

Una caja con la leyenda email@aquí para que puedas incluir tu email y mantenerte informado de las novedades **de nuestra revista.**




Otaño, Jesus. **Intervención Socioeducativa en Servicios Sociales de Atención Primaria. Cómo, con quién y para qué?** 42-58 pp. en IV Informe sobre la situación de los Servicios Sociales en Euskadi Consejo Vasco de Servicios Sociales.



Benito, E., et al., La planificación centrada en la persona y su pertinencia práctica en los servicios sociales: opinión de los profesionales. Zerbitzuan, n. 62, 2016, p. 115-126.

Montserrat,C. y Melendro, M. **¿Qué habilidades y competencias se valoran de los profesionales que trabajan con adolescentes en riesgo de exclusión social? Análisis desde la Acción Socioeducativa.** Educación XXI. UNED.



Subirats, J. El poder de lo próximo. Las virtudes del municipalismo. Serie: Mayor n. 597, Madrid, Los Libros de la Catarata, 2016,

1 2 4 p . Es en las ciudades y en la escala territorial más cercana donde hoy se perciben los procesos y efectos de la globalización y la europeización, y es también en este escenario en el que la proximidad emerge como poder capaz

de articular soluciones adecuadas a los problemas concretos y reales de la ciudadanía. Nuestros municipios ya no son, en general, aquellas administraciones reducidas a un número limitado de funciones básicas (asfaltado, alumbrado, limpieza...). Ni tampoco se limitan a ejecutar decisiones de otras esferas de gobierno.



In nobas - que, Haurren Hirien Sarea = Red Ciudades de la Infancia de Euskadi. Zamudio, Innobasque, 2016, 19, 19 p.

La Ciudad de los niños y las niñas, la propuesta de Francesco Tonucci, es un proyecto político para transformar la ciudad desde el parámetro de "lo niño": cambiar la mirada o bajar la vista hasta la altura de un niño, para no perder de vista a nadie. La propuesta es comenzar a través de dos acciones concretas: - La creación de un Consejo de la Infancia; o la comunicación entre el Alcalde o Alcaldesa y un grupo de niños y niñas. - La puesta en marcha del proyecto A la Escuela con Amig@s; o la convivencia en el espacio común - público con la infan-

URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.